



2003/01/30eko prentsa-oharra


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI)2002ko abendua

ERAIKUNTZAREN KOSTUAK % 0,2 IGO ZIREN 2002KO ABENDUAN

Datu horiekin, 2002ko hazkunde-tasa % 2,9an kokatu zen.

2002ko abenduan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorra % 0,2 igo zen, Eustaten datuen arabera. Urte arteko aldakuntzari (2002ko abendua, 2001eko abenduaren aldean) begiratuz gero, % 2,9koa izan da kostuen goratzea; aurreko urteko hazkundearen aldean (%2,3), sei hamarren gehiago.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1994-2002



Iturria: EUSTAT

Abenduan, lehengaien kostuak % 0,3 igo ziren, eta lan-eskuaren kostuak, ostera, bere horretan iraun zuen. Hala ere, urte arteko aldian, lan-eskuaren kostuak % 4,0ko igoera izan du; eta lehengaien kostuek % 2,1ekoa.

Eraikinak eta *obra zibila* azpisektoreetako lehengaiek antzeko bilakaera izan dute abenduan. Bietan izan dira igoerak, neurri berekoak izan ez badira ere: *Eraikinak* azpisektoreko lehengaien kostuak % 0,2 igo dira, eta *obra zibila* azpisektorekoak % 0,6. Hala ere, alde nabarmenagoak ageri dira urte arteko bilakaera aztertuz gero: 2001eko abenduaren gainean, % 1,7ko hazkunde-tasa du *eraikinak* azpisektoreak, eta % 3,2koa *obra zibila* azpisektoreak.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2002ko abenduan, honako arlo hauek izan dituzte prezio-igoerarik handienak: *petroliotik eratorriak* (%5,2), *energia elektrikoa* (%3,7), *karea, igeltsua eta eskaiola* (% 1,6) eta *kristala* (%1,4). Prezioen urte arteko bilakaera kontuan hartuta, igoera esanguratsuenak honako produktuen artean ageri dira: *petroliotik eratorriak* (%13,7), *metalezko hodiak* (% 7,8) *zementu artifiziala* (% 7,0), eta *makineria erabilirako osagarriak* (% 4,3).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA				2002KO ABENDUA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	119,3	0,2	2,9	2,9
ERAIKINAK	119,6	0,1	2,6	2,6
OBRA ZIBILA	118,4	0,3	3,5	3,5
LEHENGAIEN KOSTUA	113,7	0,3	2,1	2,1
ERAIKINAK	114,2	0,2	1,7	1,7
OBRA ZIBILA	112,5	0,6	3,2	3,2
LAN-ESKUAREN KOSTUA	128,4	0,0	4,0	4,0

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel.: 945 017 500. Faxe: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta
	Tel.: 945 017 505. Faxe: 945 017 501
	Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es